

JULIA BERROJALBIZ-EN OMENEZ

(1923-1998)

Bilbo, 1999-I-29

1. DATU PERTSONALAK

Julia Berrojalbiz Berrojalbiz, Gernika-ko auzategia den Ajangizen jaio zen, 1923-ko otsailaren 19an. Haren aita Juan Pedro Berrojalbiz Uriarte izan zen, eta ama, Teresa Berrojalbiz Abaitua. Aita gizon ikasia zen, urte batzuetan apaiz ikasketak egin zituelako, baina apaizgaitegitik irten eta nekazaritzan arduratu zen. Urte batzuetan Bake Epailea izan zen. Ama etxeko lanetara emana zegoen. Ezkontzatik hiru seme-alaba izan zituzten, zaharrena Julia.

Juliak Gernikako eskoletan egin zituen bere lehen ikasketak, hamabi urte bete arte.

Hamabi urte zituela Bilbora bidali zuten bere ikasketak jarraitzera. Teresianen ikas-tetxean hasi zen Batxillergoa ikasten, eta ondoren Gasteizera bidali zuten, hango ikas-tetxe famatu batean Batxillergo Nagusia egitera.

Batxillergo Nagusiaren titulua lortu ondoren, Juliaren asmoa Medikuntza ikastea izan zen, baina, tamalez, ezin izan zuen bere nahia bete, garai haietan ez zegoelako ondo ikusia emakumek horrelako ikasketak egitea. “Emakumea, etxean”. Hori zen orduko ohitura. Gehienik, Magisteritza ikastea toleratzen zen.

Horretan zegoela, zer egin jakin ezinik, mutil bat ezagutu eta hartaz maitemintzen da. José Andrés Andía zeukan izena, eta oso gazterik hasi ziren ezkongaietan.

Zer ikasi behar zuen Juliak? Berak, esan digunez, Medikuntza egin nahi zuen, baina gurasoek alde batetik, eta nobioak bestetik, burutik kendu zioten asmo hori.

Juliak amore eman zuen, eta Medikuntza ikastea baztertuz, beste aukera baten bila hasi zen. Berari Zientziak atsegin zitzaizkion, eta Kimika ikastea erabaki zuen.

Erabaki hori hartu ondoren, berriro jarri zitzaion kontra familia. Hala ere, Valladolidera joan zen, Kimika ikasketak hastera, baina etxetik zetorkion presioa handiegia zen eta hori ere utzi egin behar izan zuen.

Juliak ikasteko zaletasuna zeukan, eta besterik ezinean, Magisteritza ikasteari ekin zion. Ikasketa horiek gainditzea lortu zuen, eta hogeita sei urte zituela egin zen maistra.

Zerbait geroago, 1951ko irailaren 27an, Jose Andrés Andiarekin ezkondu zen. Nobioa, orain senarra, abokatua zen eta Bilbon jarri zuten egoitza, Rodríguez Arias kalean. Hiru seme-alaba izan zituzten: Isabel, Ander eta Javier.

2. EUSKARAREN ALDE EGINDAKO LANAK

Julia Berrojalbizek hasiera-hasieratik hartu zuen parte Bizkaiko ikastolen sorreran.

Bilboko lehenengo ikastola San Nikolas parrokiako katekesisa praktikatzeko erabiltzen zituzten geletan hasi zen lanean 1957-ko urriaren 9an.

Ikastola horretako sorreran lan handia egin zuten Julia Berrojalbizek eta eliza hartako apaiza zen Jesus Gonzalezek. Andereñoak, Agurtzane Alberdi eta Maria Angeles Garai izan ziren, eta ikasleak, hamalau ume.

Bilboko bigarren ikastola Irabalbarri-ko Frantzizkotarren komentuan sortu zen 1959-ko urtarrilaren 8an, eta hor ere lan handia egin zuen Julia Berrojalbizek. Ikastola honetako andereñoak lau izan ziren: Agurtzane Alberdi, Severina Mardaraz, Estibaliz Gereño eta Carmen Gangoiti, eta ikasleak 48 ume.



Julia Berrojalbiz Berrojalbiz.

Julia Berrojalbizen inguruan talde bat sortu zen ikastola hauek, eta gero etorriko zirenak, aurrera bultzatzeko. Talde horretan aipagarriak dira Tere Rotaetxe, Sabin Zubiri, Karmele Goñi, Asun Candina, Mari Iraragorri, Begoña Rotaetxe, Luis Mari Retolaza, Mari Etxebarria, Bernardo Mesanza, Miren Goitia, Nikola Madariaga, Txaro Sopolana, Tere Markoartu eta beste batzu gehiago.

Bi ikastola horiek, garai hartako legeetaz kanpo zeudenez, ez zuten izan bizitze luzerik, eta agintariek itxi egin zituzten.

Umeen heziketa euskaraz jarraitu ahal izateko, bide berri bat asmatu zen, hau da, ikasketak etxerik etxe ematea.

Etxe horiek asko izan ziren eta neurriak hartzen zituzten deskubrituak ez izateko, klandestinitatean mugitzen zirelako. Antolaketa horretan lan nagusia Julia Berrojalbiz-ek bete zuen.

Arazoa, ikastolak legeztatzea zen. Hori lortzeko, Julia Berrojalbizek Pablo Sanchez heziketa inspektorearekin hitz egin zuen eta honen aholkuekin, Madrileria joan ziren 1968ko apirilaren 17an Julia bera, Tere Rotaetxe eta Alfonso Irigoien, Elkano kalean zabaldu nahi zuten ikastola berri bat hasiera bertatik lege barruan sortzeko.

Bidaia horretan arrakasta lortu zuten, eta horrela sortu ahal izan zen Bilboko lehenengo ikastola legeztatua, Elkano 6an, Tere Rotaetxe jabea zen pisu batean.

Elkanoko ikastola legeztatua handitzen joan zen urterik urte, eta igoera horrek behartu zuen inguruan pisu berriak alokatzera, ikastola handitzeko. Horrela, hiru urte geroago, hau da, 1971. urtean, hogeiki ikasgela zeuden funtzionamenduan, Julia Berrojalbiz-ek zuzendaritza hartu zuen. Ikasleen kopurua, 1971-72 ikasturtean, 530koa zen. Gogoan izan, azken zifra hau ondo ulertzeko, ikastola horren legeztatzea 1968ko maiatzaren 7an lortu zela. Beraz, harrigarria izan zen hiru urtetan lortutako gorakada.

Hori ikusita, zeregin horretan zebilen jendea animatu egin zen, eta Julia Berrojalbiz-ek ahalago berri bati ekin zion, ez beharbada aspaldikoak bezain arriskutsua, baina bai handiena, hau da, Lauro ikastola martxan jartzea.

Momentu horretan, Lauroko ikastola martxan jartzearenean, Elkano kalean sortutako Resurrección María de Azkue ikastolan, 630 ume zegoen ikasle bezala.

Lauroko ikastola handiaren proiektua martxan jartzeko kooperatiba bat sortu eta Loiu 46.730 metro karratutako lurak erosi ziren.

Lan handia eta korapilotsua egin zen edifizioak eraiki ahal izateko eta, azkenik, lan guztiak amaituta, 1972ko irailean zabaldu zen Lauroko ikastola handia, Julia Berrojalbiz zuzendari pedagogikoa zela.

Zuzendaritza horretaz gain, Julia Berrojalbizek ikastola berriak sortzeari ekin zion, Bizkaiko hainbat herritan. Bera izan zen ikastola horietan bultzatzailea eta laguntzailea, hala nola Algortako San Nikolasen, Deustuko ikastolan, Artxandapekoan, Portugaleteko Astilekun, Lekeitioko Resurrección María de Azkuen, Markinako Zerutxon, Santutxuko Karmelon, Bermeoko Eleizalden, Elorrion, Durangon, Gernikan, Euban, Ermuan, Matienan, etab.

Ikastoletako lanetatik aparte, udalekuek ere arduratu zen, eta Euskerazaleak elkarteko lanetan ere parte hartu zuen.

Ondo merezita, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazlea izendatu zuen 1967 urtean, eta ohoetzko euskaltzaina 1998n.

Xabier Gereño